



Hitzontzikeriak eta sineskeriek egari egiten dioten kaltea aztertu du Mitxelko Urangak 'Emognosia' bere saiakeran berrian

Miguel de Unamuno 25. saria irabazi ondoren eman du lana argitara, Ereinekin. Konspiranoia, negazionismoa eta populismoaren estrategiak ere aztertu ditu saiakeran, eta, besteak beste, arretaz erreparatu die sare sozialetako joerei.



Mixelko Uranga, gaur goizean Donostian, 'Emognosia' bere liburu berria eskuetan. GORKA RUBIO / FORU

Uxue Rey Gorraiz
2025KO URRAREN 13A | 16:30



Egiari zor, lana «albo kalte bat» da; hori aitortu du Mitxelko Urangak (Berango, Bizkaia, 1978), hasteko. 2021ean UEUK eta Eibarko Udalak antolatzen duten Juan San Martin beka jaso izanak piztu zuelako txinparta bat, nolabait. Eduardo Apodaka eta Joseba Gabilondorekin batera ondutako *Globalizazioaren ondorena: apokaliptisa, egia-ostea eta subjektuaren autonomia* proiektua nabarmendu zuen sariketa horretako epaimahaiak, eta, lan horretatik abiatuta, liburu bakarra ez, liburu bana idaztea erabaki zuten hiru autoreek. Egari buruzko lan bat hasi zuen orduan Urangak. «Zergatik? Bagenekielako *egia-ostea* hitza pil-pilean zegoela, egia krisian zegoela erakusten zuten zantzuak ikusiak genituelako; bazegoelako zerbait hor», ekarri du gogora filosofoak. Azterketa lan hori *Emognosia* izenburupean jaso zuen gerora, eta Miguel de Unamuno 25. saria irabazi zuen iaz harekin. Liburu modura eman du orain saiakera, Erein argitaletxearekin.

«Liburua egari buruzkoa da funtsean, baina egia da egiaz hitz egiten duzanean beste gauza askotaz ere hitz egin behar duzula», onartu du Urangak saiakeraren aurkezpenan, Donostian. Inazio Mujika Ereineko editoreak lagunduta esplikatu ditu liburuaren nondik norakoak, eta batak eta besteak utzi nahi izan dute agerian liburua zenbateraino den lotua gaur egungo joera eta auziek. «Ikasgai askoko filosofia liburu bat da, gaur egungo gaiei erantzuten dien liburu bat», azpimarratu du Mujikak. Eta saiakeran jasotzen den diagnostiko bat ere eman du editoreak, mokadu gisara, autoreari hitza eman atarian: «Gaur egungo gizarteak joera du arrazoi baztertzeko; emozioa bihurtu da egia eta errealitatearen irizpide nagusia».

Hain justu ere, horrekin du ikustekoa Urangaren saiakerak izenburuan berean nabarmendua daukan *emognosia* kontzeptuak. Egileak eta editoreak aletu dutenez, *emo* —emozioak— eta *gnosis* —ezagutza— adieren batuketa eginez sortu du hitza Urangak. Hitz bakarrean bildu du, hala, azken urteotan eta batik bat COVID-19aren izurriteaz gerotik sumatu dituen «sintomei» begiratura ondorioztatutako batzuk. «Negazionismoa, konspirazioa, *plandemia* delakoa pandemia garaian; arrazoiak hondo jo du, eta egia krisian dago. Arrazoi baztertu egiten da horietan guztietan, eta emozioei helten zaie».

Ezaxolakeria garaile
Joera horren sintomak eta kausak, biak jaso ditu saiakeran Urangak, eta gaur egungo adibide ugariarekin hornitu ditu azalpenak. Gainera, emozioen gailentzea ez ezik, beste hainbat fenomeno ere sarri identifikatu ditu ikerketan: hitzontzikeria edo berbontzikeria da horietako bat. «Egiarekiko ezaxolakeria» gisara definitu du hori, zehazki. «Gezurra eta berbontzikeria ez dira gauza berbera; batak ondo diseinatutako plan bat behar du, besteak ez».

Marina Yers *influencer* eta eduki sortzailearen kasua ekarri du hizpidera Urangak, adibide gisara. Kasu ezaguna da harena. «*Influencer* hau zuzenekoetan xebebrekeriak egiteagatik eta esateagatik egin da famatu. Eta kontuan har dezagun Tiktoken 3,5 milioi jarraitzailetik gora dituela», gogoratu du egileak, haren soslai emateko. 2020an egin zuen eztanda Yersen auziak: zuzeneko bideo batean, esan zuen urak «deshidratatu» egiten duela, eta, hori argudiatzeko, azpimarratu zuen hala ez balitz «ur botiletako etiketetan adierazia» legokeela urak hidratatu egiten duela. Urangaren iritziz, egia-ostearen adibide garbia dira tankera horretako kasuak. «Yersen kasuan, horrek erakutsi zuen berdin zitzaioela egia zein zen. Auskalo nondik atera zuen datu hori, baina berdin-berdin bota zuen; hori da berbontzikeria».

Beste zientoka adibide ere zerrenda daitezkeela iradoki du Urangak, segidan. Donald Trump AEBetako presidentea alpatu du, kasurako. Uranga: «Argi eta garbi esaten digu egia ez zaiola axola. Soilik botatzen du behar duen mezua, egia izan edo ez, bere helburuak lortzearen». Dioenez, horretan oinarritzen da populismoa batez ere, eta, izatez, hitzontzikerien bitartez emozioetara heltzeko gaitasunagatik dauka populismoak halako arrakasta. «Minduta dauden horiengan, bereziki».

«Bizi duguna ez da erlatibismoa; omen dauden egia guztiak ez baitaude maila berean. Konspiranoikoarentzat berea da egia bakarra, eta besteak ez ditu errespetatzen»

MITXELKO URANGA
Idazlea

Bestalde, egia bat eta bakarra ez delako argudioa sutsuki nabarmentzen dutenei buruzko gogoetak ere jaso ditu Urangak lanean. «Esaten digute egia objektiboa ez dela existitzen, eta onartzeko egia asko daudela eta norberak duela berea». Ordea, autorearen esanetan, erlatibismoa aldarrikatzen dutenetako asko izaten dira, preseski, arrazoiari edo zientziari loturiko argudioak guztiz baztertu eta eztabaidatzeari ere uko egiten diotenak. Talde horretan kabiarazi ditu, besteak beste, «negazionistak» eta «konspiranoikoak».

Ondorioetara helduta, gaur egungo garaia deskribatzeko manera bat plazaratu du Urangak, zorrotz. Errealitatea zein ez den argitu du aurrena: «Bizi duguna ez da erlatibismoa; omen dauden egia guztiak ez baitaude maila berean. Konspiranoikoarentzat berea da egia bakarra, eta besteak ez ditu errespetatzen». Eta, kontrara, xehe azaldu du zer gailentzen den, haren ustez: «Emognosia», emozioen bidezko ezagutza, alegia. Horra hor liburuaren abiapuntua eta helmuga: egiaren bilaketan emozioak gailentzen direlako ideiaaren azpimarra. Baina dei bat ere badakar liburuk berarekin, aurkezpenean azpimarratu dutenez: autokritikarako.

- GAIAK**
- Arteak eta kultura
 - Literatura
 - Literatura euskaraz
 - Uranga, Mixelko
 - Mujika, Inazio
 - Erein
 - Euskal Herria

Kazetaritza propio eta independentearen alde

BERRIAK kazetaritza konprometitua egiten du, komunikabideen eginkizuna funtsezkoa baila gizarte informatuta egoteko eta kritikoa izateko. Lan horretan sakontzeko, irakurleen babes ekonomikoa ezinbestekoa da, neurri handi batean komunitate handi horrek sostengatzen baitu euskarazko egunkari nazionala. Babestu BERRIA.

[Egin zure ekarpena](#)

IRUZKINAK Ez dago iruzkinik

Iruzkin bat egin

ORDENATU DATA

INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU

Ariane Toro: tatamian etorkizun oparua duen oraina
JONE BASTIDA ALZURU

Bera Berak Valladoliden aurka jokatu du Kopako final-laurdenetan, eta Beti Onak-ek Guardesen kontra
AINARA ARRATIBEL GASCÓN

Pozik
MIKEL REINA



NABARMENDUAK

- Ariane Toro: tatamian etorkizun oparua duen oraina**
JONE BASTIDA ALZURU
- Bera Berak Valladoliden aurka jokatu du Kopako final-laurdenetan, eta Beti Onak-ek Guardesen kontra**
AINARA ARRATIBEL GASCÓN
- Pozik**
MIKEL REINA
- Lau bikote finalerdi xerka**
JON ESKUDERO

Harpidetu Berriaren buletinetara

- Mendia
- Goizekoa
- Astekaritza
- Bizkaia
- Nafarroa
- Izena ematean zabalututakoan soilik onartzen duzu.
- Arratsaldekoa
- Badok
- Kinka
- Gipuzkoa
- Araba
- Iparralde

Zure posta elektronikoa

[Harpidetu](#)

